

LAB-EKO HELDUEN ETA PENTSIODUNEN ARLOKO DELEGARITZAREN AGURRA, MSF-KO JUBILATUEN ETA PENTSIODUNEN NBS-AREN EUROPAR BILTZARREAN.

NBS Europarreko adiskideok: Euskal Herriko LAB sindikatuko helduen eta pentsiodunen arlotik biltzar honetako kideengana jotzen dugu. Gure eragin eremua den Euskal Herria, Piriniotako mendebaldean eta Bizkaiko golkoan dagoen estaturik gabeko nazioa dugu.

Gure herrian, populazioaren %25 inguru gara dagoeneko helduak eta pentsiodunak. Arlo honetara bideratzen ditugu ekintza sindikal aldarrikatzaileak. Sektore ezegonkorra da, izan ere, %54ak (364.705, gehienak emakumezkoak) Europako karta sozialak gomendatutako gutxieneko pentsioak baino baxuagoak jasotzen ditu, hutsalak.

Premiazko egoera honetan, Europak zehaztutako pentsio minimo erreferenteak aintzat hartuta (herri bakoitzeko batazbesteko soldataren %60a), pentsio baxuenen osagarritasunaren alde borrokan ari gara. Gurean, gutxieneko pentsio hori, 1080 €-koa beharko luke.

Gure borrokak badu helburu ere, Euskal Herrian Gizarte Segurantza eta Babes Sistema propioa izatea, euskal erakundeen eskumen guztiekin: pentsioak, mendekotasunari arreta, osasungintza... Ardats ditugu baita ere: gizon eta emakumeen arteko berdintasun eskubideen aldarrikapena; erabilerraztasuna; osasun-arreta osoa, publikoa eta doakoa...

Etorkizunean, pentsiodunen eta jubilatuen NBS-arekin elkarlanean aritzeko gogoia adierazten dugu, pentsiodunen bizi baldintzak hobetzeko asmoz. Zuekin elkarlanerako konpromisoa hartzen dugu, ahalbideen arabera, diagnosiak egiteko, elkarren arteko mobilizazioak burutzeko, edota Biltzar honetan egindako akordioetatik ondorioztatzen diren eginkizunak betetzeko, LABen oinarriekin bateragarri diren heinean.

Euskal Herritik, agur adeitsua Biltzar honetako partaide zareten erakunde guztiei, batik bat, gure kasuan bezala, estatu propiorik gabekoak izan, eta Herri libreen eta subirauek Europa Sozial batengatik borrokan ari zareten horiei.

Bukatzeko, baditugu oroipen bat eta aldarrikapen bat:

Oroipena, Igor Urrutikoetxea gure adiskidearentzat, LABeko nazioarteko harremanetarako idazkari ohia. Bere laguntza ezinbestekoa izan zen LABeko pentsiodunen arloak, MSF-ko jubilatuen eta pentsiodunen NBS-aren sorkuntzan parte har zezan.

Aldi berean, MSF-ko NBS-Meatze eta Metaleko idazkari nagusia izan zen Igor. 2013. urteko urrian, Brasilgo CTBk Rio de Janeiron antolatutako NBS-Meatze eta Metaleko II. Mundu Biltzarrera joan zen. Bidaia honetan, gazte-gazte zelarik (38 urte besterik ez) zendu zen Igor, istripu hilgarria izan zuenean.

Aldarrikapenari dagokionez, Biltzar honen aitzinean espreski salatu nahi dugu, 12 urtetan zehar LAB-eko idazkari nagusia izan zen Rafa Díez Usabiagaren bidegabeko espetxeratzea Estatu Españolean arrazoi politikoak direla medio, eta berehala aske uztea eskatzen dugu.

Rafa Díez LABeko idazkari nagusi zela, integratu zen gure sindikatua MSFan.

Kopenhage, 2016ko Uztailaren 20a.